



Ruben RUIZ

Itsasoaren lezioa, 2002, Desclée de Brouwer

Azken giltza, 2003, Desclée de Brouwer

Txokolatezko atzamarra, 2003, Erein

Eta txorimaloa mintzatu zen, 2003, Aizkorri

Nora joan da argia?, 2006, Aizkorri

Sekretuak belarrira, 2007, Aizkorri

Anekdotak, 2008, Pamiela

La importancia de los intermediarios*

Ruben RUIZ

Los niños y niñas no vienen al mundo con la afición por la lectura desarrollada, pero tampoco sin ella. El niño/a necesita un entorno social familiar y escolar que le impulse a desarrollarla. Para lograrlo el trabajo de los intermediarios es muy importante. Hay diferentes intermediarios: bibliotecarios/as, maestros/as, padres y madres, libreros/as, medios de comunicación...

El mercado bibliográfico de niños y jóvenes cada vez se asienta más en las necesidades de la intermediación. En los últimos tiempos se oyen las voces especialistas que denuncian lo inflado que está el mercado. Para formarse como lector es necesaria (o por lo menos, muy deseable) la ayuda de alguien afectivamente cercano al niño: padre y madre, tíos, hermanos, maestros, bibliotecarios.

Es imprescindible que los intermediarios tengan en cuenta que los niños deben tener la libertad de decidir qué quieren leer y qué no, y de decirlo así. El intermediario debería acompañar al niño en su formación lectora con una actitud respetuosa, y en ese proceso el intermediario debería conocer los deseos, intereses, preocupaciones, ritmo, madurez del niño... para poder ser de ayuda.

240

Familia

Habitualmente el primer contacto con el libro suele darse en el cálido ambiente familiar. Una familia con hábitos lectores es determinante en la posterior afición del niño aunque no decisiva. Con padres aficionados a leer, el niño sentirá sin duda el amor por los libros, pero estos padres deberían tener claro que si sus hijos no demuestran ese amor por los libros, no deben sentirse fracasados o frustrados. La lectura por obligación tendrá muy buenos efectos a corto plazo (si los tiene) pero ninguno a largo plazo.

En ocasiones, aunque el ambiente familiar no favorezca la afición por la lectura, el niño encontrará los estímulos en otro entorno: en una buena película, en el comentario de algún amigo, al saber que un ídolo deportivo es un lector empedernido, en la lectura en voz alta de un maestro, en la reseña de un crítico literario, a través de una obra literaria de gran impacto social, en una obra de teatro...

La primera condición para impulsar la afición por la lectura es que uno mismo sea lector y ejercer a menudo, y si es en presencia del niño, mucho mejor.

* Traducción realizada por Martín Saragüeta González. Biblioteca Pública de Aurizberri / Espinal

Bitartekarien garrantzia

Ruben RUIZ

Haurrak ez datoz mundura irakurzaletasuna garatuta dutelarik, baina ezta hori gabe ere. Haurrak irakurzaletasuna garatzeko, horretara bultzatuko duen ingurune sozial, familiarra eta eskolarra beharko du. Horretarako bitartekarien lana garrantzi handikoa izango da. Bitartekari ezberdinak daude: bibliotekarioak, maisu-maistrak, gurasoak, liburu-saltzaileak, komunikabideak...

Haur eta gazte literaturaren merkatu bibliografiko gero eta handiagoan du oinarria bitartekaritzaren beharrak. Azken bolada honetan, badira aditu batzuen ahotsak merkatuaren puztasuna "salatzeko" edo kaleratzeko altxatu direnak. Haurrak afektiboki hurbila (aita-ama, osaba-izeba, anaia-arreba, maisu-maistra, bibliotekaria...) den norbaiten laguntza izan beharko du (oso eskertzekoa izango litzateke behintzat) irakurle bezala formatzeko.

Bitartekariak garbi izan beharko lukete lehenengo eta behin hurrek askatasuna izan behar dutela zer irakurri nahi duten erabakitzeko edota irakurri nahi duten edo ez esateko. Begirunezko jarrerarekin lagundu beharko lioke bitartekariak haurrari bere irakurle formazio bidean. Eta bide horretan bitartekariak haurraren nahiak, interesak, kezkek, erritmoa, heldutasuna... ezagutu beharko litzuzke bidean lagundu ahal izateko.

241

Familia

Seguruen liburuekin izaten den lehenengo kontaktua familiaren giro beroan izaten da. Familia batean irakurtzeko ohitura badago, hori erabakiorra da haurraren zaletasunean baina ez erabatekoa. Gurasoak irakurzaleak badira haur horrek jasoko du dudarik gabe liburuekiko maitasuna, baina guraso horiek garbi izan beharko lukete, eta ez lirateke frustratu edo porrot egin izanaren sentiazioa bizi behar bere seme-alabak ez badu liburuekiko maitasunik adierazten. Irakurtzera derrigortzeak oso efektu onak izango ditu denbora laburrean (baldin baditu) baina luzaroan ez du indarririk izango.

Batzuetan nahiz eta etxeko giroak irakurzaletasuna ez bultzatu, zenbait haur beste testuinguruetan bilatuko edo aurkituko dituzte bizigarriak: film on batean, lagun baten komentario batean, kirol idoloa irakurzalea dela jakitean, maisu-maistra batek egin dezakeen irakurketa ozenean, literatur kritikari batek egin dezakeen erreseinan, literatur lan batek gizarte dimensio handia lortzean, antzerki lan batean...

Irakurzaletasuna bultzatzeko lehenengo baldintza norbera irakurzalea izatea da eta eskubide hori sarritan hartzea eta haurren aurrean bada askoz hobeto.

Gurasoek beste bitartekari batzuk izan ditzakete kalitatezko obrak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko garaian: prentsa kritikoak, bibliotekariak, liburu-dendetako langileak, Galtzagorri

A la hora de seleccionar lecturas de calidad, los padres pueden ejercer su función a través de otros intermediarios como las críticas de prensa, los bibliotecarios, los libreros, los diferentes programas de *Galtzagorri Elkartea*... pero en cualquier caso, lo ideal es que hayan leído las obras que van a recomendar a sus hijos.

Actualmente hay un gran mercado organizado en torno a los pequeños, y también en el mundo del libro hay todo un abanico de posibilidades. En muchas ocasiones he visto y oído discusiones entre padres-madres y sus hijos sobre qué libro adquirir para el niño, y aunque está bien ejercer como intermediario, hay que garantizar la libertad de elección si se quiere promocionar la afición lectora. A menudo unos y otros se apoyarán en criterios similares a la hora de elegir uno u otro libro: el título, las ilustraciones, los colores... sin otras referencias. ¿Por qué ha de hacerse caso al criterio del adulto si él o ella no van a leerlo? Al final todo es discutible.

Aunque las condiciones relatadas hasta ahora no son difíciles de llevar a cabo, no se dan en muchas familias puesto que en este loco mundo no le damos importancia a los asuntos que realmente lo merecen, o por lo menos, no les prestamos la atención que se merecen. Así, a los niños no se les leen cuentos más que a la hora de dormir (y menos mal), y muchos adultos tienen por costumbre no leer más que a la hora de acostarse. ¿Cuánto tiempo le dedicamos a la lectura de ese modo? Los restos del día, cuando el cansancio acumulado nos lleva a cerrar el libro sin terminar la primera página... Pero, en fin, que cada uno lo haga cuando puede y quiere, por supuesto.

242 Escuela

Una de las funciones de la escuela puede ser garantizar la igualdad de oportunidades para todos los niños en los distintos ámbitos (libros incluidos), y reducir y eliminar las posibles desigualdades. Pero entendámonos: la escuela debe igualar, no crear modelos únicos. Debe tener una función compensadora.

La escuela debería tener un compromiso para con los libros, y al igual que en el ámbito familiar, el mejor profesorado para la promoción de la afición lectora sería aquel que además de trabajar en su favor, fuera a su vez lector. Pero, sospecho que no es esa la realidad, y que en muchos casos el profesorado no hace para sí lo que recomienda para otros. Es muy difícil obtener resultados y contagiar la afición lectora si no se vive y se cree en ello.

Si la escuela quiere realmente crear lectores debería plasmar todo esto en un plan.

A la administración se le llena la boca hablando de la promoción de la lectura, pero hasta dónde llega realmente es muy cuestionable. La escuela debería tener una biblioteca digna y en muchos casos eso no se cumple. En nuestra escuela es el Olentzero el que más colabora y con su ayuda vamos poco a poco renovando los fondos e incluyendo aquellos títulos que según nuestro criterio, son de calidad. Tengo muy presente cómo algunos políticos del Departamento de Educación de nuestro Gobierno de Navarra nos invitaron a la presentación de un plan de lectura... Al término de la presentación nos permitieron hacer preguntas y yo les planteé la cuestión de por qué habían eliminado el programa "El tesoro de los libros"

Elkarteko programa ezberdinak... baina onena beraiek haien seme-alabei gomendatu behar dieten liburuak aurretik irakurri izana izango litzateke.

Haur txikientzat gaur egun sekulako merkatua dago montatuta, eta liburuen esparruan ere aukera zabala dago. Liburudendetan askotan entzun-ikusi izan dut ama-aita seme-alaba baten arteko eztabaida, haurrak liburu bat nahi eta aita-amak beste bat (baina haurarentzat), ongi dago bitartekari lana egitea baina askatasuna ere bermatu behar da, irakurzaletasuna nahi bada. Eta sarritan bata zein besteak oinarri berdinak erabiliko dituzte liburu bat edo beste bat aukeratzeko: izenburua, marrazkiak, koloreak... Bestelako erreferentzi gabe zergatik kasu egin behar zaio helduari, liburu ez badu berak irakurri behar? Tira, seguruen oso diskutigarria da guztia.

Orain arteko proposamenak zailak ez diren arren familia askotan ez dira ematen, bizi garen mundu zoro honetan benetan garrantzia dituzten gauzei ez batiegu sarritan erreparatzen edo beharko luketen denbora ematen. Horrela haurrei sarritan oheratzerakoan soilik kontaktzen zaizkie ipuinak (eta gaitzerdi), eta heldu askoren ohitura ere bada hori, oheratzerakoan irakurtearena bakarrik. Eguneko zein orduak edo minutuak eskaintzen dizkiogu irakurketari horrela eginez gero? Egunaren azken hondarrak, nekea pila-pilatua dugunean, lehenengo orria irakurri gabe liburu ia ixtera eramaten gaituena... Baina, tira bakoitzak ahal duenean edo nahi duenean egin dezan, jakina!

Eskola

243

Eskolaren betebeharra gizarteko haur guztiek arlo ezberdinetan (liburuak barne) aukera berdinak izatea bermatzea izan daiteke, eta eman daitezkeen desberdintasunak gutxitzea eta berdintzea. Eskolak haurrak berdindu behar ditu, ez ditu molde bakarrekotak egin behar, ongi ulertu. Funtzio konpensatzailea izango du.

Eskolak liburuekiko konpromiso bat izan beharko luke, eta familietan bezala irakurzaletasuna bultzatzeko irakaslego irakurzalea litzateke hoberena, eta irakurketaren alde lan egingo duena. Baina, susmoa dut hori ez dela errealitatea eta kasu askotan maisu-maistrek gauza bat esaten dute (bultzatzen dute ahoz) eta gero beste bat oso ezberdina egin (ekintzez). Baina edozein gauza kutsatzeko bizi behar da barrenetik eta sinestu beharra dago horretan, bestela oso zaila izango da etekinik lortzea.

Eskolak irakurleak sortu nahi baditu, hori guztia zehaztu beharko luke plan batean.

Administrazioari ahoa betetzen zaio irakurzaletasuna gora eta behera, baina gero noraino bultzatzen duen oso eztabaidagarria da. Eskolak liburutegi duin bat izan beharko luke. Eta kasu askotan hori ez da ematen. Gure eskolan Olentzero (familiaka) da gehien kolaboratzen duena, eta mantso-mantso bere laguntzarekin bibliotekaren fondoa berritzen, eta gure uste-tan kalitatezkoak diren liburuak sartzen ari gara. Oso gogoan dut nola gonbidatu gintuzten gure Nafarroako Gobernuko —Hezkuntza Departamentuko— politikari batzuek irakurketa plan bat aurkezteko... Bukaeran galderak egitea utzi ziguten eta nik galdetu nien ea zergatik kendu ote zuten *Liburuen Altxorra* programa —Galtzagorri Elkartekoa— eta haren erantzuna

—de *Galtzagorri Elkarte*—. Su respuesta fue que “No, no, nosotros no hemos retirado ningún programa de ese tipo bla-bla-bla”. Creo que realmente no conocían el proyecto ni la buena aceptación que tuvo entre el profesorado, pero bueno... ahora, el mismo proyecto se ha puesto en marcha desde distintos “CAP” aunque con un formato diferente. Es un mal menor.

Los profesores de las escuelas deberían distinguir entre la lectura funcional y la lectura lúdica, y promocionar ambas. La relación que niños y jóvenes deberían tener con los libros debería ser una relación de amor, y no una relación forense: encuentra en este texto dos metáforas, tres adjetivos y una hipérbole.

En lugar de acciones puntuales, la escuela debería mantener una base sólida y realizar diferentes actividades durante todo el curso.

Biblioteca

Uno de los mejores instrumentos de los que dispone la administración para la promoción de la lectura es sostener una buena red de bibliotecas.

El público que se acerca a las bibliotecas, en principio, tendrá una buena disposición hacia los libros, y solicitará los consejos y el trato agradable de los profesionales. Así, el bibliotecario deberá escuchar las dudas y preocupaciones de los usuarios, orientará en la selección de las lecturas, aconsejará a padres-madres y niños, deberá suscitar la curiosidad y, cómo no, se despedirá con un “hasta mañana” o un “hasta pronto”, es decir, con una invitación al usuario para que vuelva a la biblioteca.

244

El trabajo en común entre la escuela y la biblioteca es imprescindible: para coordinar sistemáticamente la formación de usuarios y las acciones de promoción de la lectura. De esta manera se aprenderá a conocer la forma en la que se organizan los fondos, los libros existentes y cómo se utilizan.

La mayoría de las bibliotecas tienen sus propias programaciones: citas con escritores e ilustradores, visitas de cuentacuentos, clubes de lectura, exposiciones... y aunque todas esas actividades están bien, suelen ser actividades de grupo, y los bibliotecarios no deberían perder de vista el hecho de que quienes se acercan a la biblioteca son individuos con sus propios y diferentes intereses, deseos y necesidades. Deberían intentar satisfacer todos ellos.

Librería

Los vendedores de libros infantiles muchas veces escuchan la misma pregunta: ¿Qué libro le puedo regalar a un niño de esta edad? Y para poder ofrecer una respuesta adecuada, el vendedor tiene que mostrar que conoce el mar de productos que hay en el mercado.

Lo que ocurre a menudo es que este vendedor recomienda los libros que se editaron la semana pasada, y aunque esto sea lógico, ocurre que quizás no dispongan de un muy buen libro editado hace tres años. Hoy día, la vida comercial de los libros es bastante corta. Vivimos en un mundo de novedades, y eso no es nada saludable.

izan zen: ezetz, beraiek ez zutela horrelako programarik kendu, mar, mar, mar. Nik uste ez zuela ezta egitasmoa ezagutzen, eta zein harrera ona izan zuen irakaslegoaren artean, baina tira... Orain "CAP" ezberdinetan egitasmo bera martxan dago beste formato batean bada ere, gaitzerdi.

Eskoletako maisu-maistrek ezberdindu beharko lukete irakurketa funtzionala eta ludikoaren artean. Eta biei bidea eman. Haur eta gazteek liburuekin izan beharko luketen harremana amodiozkoa beharko luke eta ez (hainbatetan den bezala) forenserena: aurkitu testu honetan bi metafora, hiru adjetibo, eta hiperbole bat.

Zenbait ekimen puntual egin beharrean eskolak izan beharko luke oinarri sendo bat eta kursoan zehar aktibitate edo ekimen ezberdinak burutu.

Biblioteka

Administrazioek irakurketa zaletasuna bultzatzeko modurik onenetarikoa liburutegi sare polit bat osatzea da.

Liburutegietara jotzen duen jendeak, printziaz liburuaren aldeko jarrera izango du, eta bertako profesionalen aholkua eta tratua atsegina eskatuko du. Horrela bibliotekariak erabiltzaileen kezka eta zalantza entzun beharko ditu, irakurgaiaren aukeraketan orientatzaile izango da, guraso zein haurren aholkulari izango da, jakinmina piztu beharko du, eta nola ez, agurtuko da bihar arte, laster arte... alegia, gonbidatu beharko du berriz ere buelta dadin liburutegi erabiltzaile hori.

Liburutegien eta eskolen arteko elkarlana beharrezkoa da: erabiltzailearen formazioa, irakurzaletasun ekintzak sistematikoki koordinatzeko. Modu horretan ikasiko dute zein liburu dauden eta nola erabil behar dituzten, eta zer dagoen beraien barruan gordeta.

Liburutegi gehienek bere programazioan izaten dituzte: idazle eta ilustratzaileekin zitak, ipuin kontalarien bisitak, irakurle klubak, erakusketak... Eta horiek guztiak ongi dauden arren talde ekintza izaten dira guztiak, eta liburuzaletan ez lukete bistatik galdu behar liburutegira lagun indibidualak doazela eta bakoitzak interes, nahi, behar... ezberdinak dituztela; eta saiatu beharko lirakeela horiek guztiak asetzen.

Liburudenda

Haur-liburu saltzaileek askotan jasotzen dute galdera bera: Zein liburu oparitu dezaket horrelako adina duen ume bati? Eta erantzun egoki bat emateko haur-liburu saltzaileak erakutsi beharko du merkatuaren itsas zabala ezagutzen duela.

Zer gertatzen da sarritan, haur-liburu saltzaile horiek azken astean argitaratutako liburuak gomendatuko dituztela, logikoa bada ere, gerta liteke duela hiru urte ateratako liburu oso on bat ez izatea. Gaur egun liburuaren bizitza komertziala labur samarra da. Nobedadeen munduan bizi gara, eta hori ere ez da erabat osasungarria.

Otros intermediarios (editores, medios de comunicación, amigos, foros de formación)

La aportación que los editores pueden hacer al mundo de la promoción de la lectura es tan simple como difícil: que la obra que vayan a editar sea de calidad, mantener en el catálogo unos cuantos buenos títulos, dar una oportunidad a los géneros minoritarios...

El lugar que ocupa la literatura en los medios de comunicación crece cada día. Algunos periódicos disponen de un suplemento específico, otros, le hacen un hueco en sus ediciones diarias. En las radios también tiene su eco. Y en los últimos años incluso en la televisión han surgido algunos programas (*Ipupomama*). Además están las revistas especializadas (*Behinola, Clij, Educación y Biblioteca...*). Quien se interese por la cuestión tiene dónde encontrar.

A ciertas edades la influencia de los amigos es muy importante, y sus recomendaciones e intereses pueden condicionar las aficiones y lecturas del resto de compañeros del grupo.

Al fin, los intermediarios deberían ofrecerle al lector su ayuda para que consiga ser autónomo y encuentre sus propias lecturas liberándose de nuestros consejos.

Beste bitartekari batzuk (editoreak, komunikabideak, lagunak, formakuntza mintegiak)

Editoreek irakurzaletasun munduari egin diezaioketen ekarpena zaila bezain sinplea da: argitaratu behar duten hori kalitatezkoa izatea, katalogoetan zenbait izenburu on mantendu, gutxiengo generoei aukera bat eman...

Komunikabideetan literaturak duen tokia egunez egun handiago da. Egunkari batzuek beraien gehigarri propioa dute, beste batzuek toki bat egiten diote bere egunekotasunean. Irratietan ere badu bere oihartzuna. Eta telebistan ere sortu dira zenbait saio azken urte hauetan (Ipupomamua). Gero, noski, aldizkari (Behinola, Clij, Educación y Biblioteca...) espezializatuak egongo lirateke. Nahi duenak badu nora jo.

Lagunek duten eragina adin tarte batean oso handia da, eta horien proposamenek edo interesek markatu ditzakete taldeko partaideen irakurketak eta zaletasunak.

Finean, bitartekariak laguntza eskaini beharko liokete irakurleari bere autonomia lortzen, bere irakurgaiak aurkitzen eta lortzen lagundu, gure aholkularitzatik askatu arte.